

Zikloturismoa



ALTIMETRIAS.COM

Guaza eta Uribarri, Stelvio mendatean, italiar Alpeetan.

Internet, mendateen abiapuntuan

Mendateek beti erakarri dituzte zikloturistak. Horren isla da Ander Guaza eta Juanto Uribarri bilbotarrek sortutako Altimetriass.com web gunea. Zikloturista askorentzat erreferentzia bihurtu den orrialde horretan, mendate ugariren inguruko informazioa jaso dute, pendizen ehunekoak erakusten dituzten grafikoak barne. Grafiko horiek nola osatzen dituzten galdetu diegu eta bide batez, martxa zikloturisten inguruan ere aritu gara, denboraldia hastear dagoenean.

Jon Torner

TOURMALET, Luz Ardiden, Aubisque, Marie Blanche, Portalet, Alpe D'Huez, Galibier, Stelvio, Mortirolo... Txirrindularitzaren historiako orrialde ederrenetakoak betetzen dituzten Pirinio eta Alpeetako mendate horien izenak entzutez izango dira ezagunak askorentzat. Dena den, zuen artean izango da bizikleta gainean igo dituenik ere. Ohikoa da Tourreko edo Giroko etapak ikustera joan eta hantxe zaudela aprobetxatuz zure idoloak imitatu nahi izatea. Edo astebete luza daitezkeen oporraldietan bizikletak autoan sartu eta ahalik eta mendate gehien igotzea. Beste batzuek Quebrantahuesos moduko martxetan igoko zenituzten. Mendateek "erotuta" dauzkaten zikloturista horietakoak dira Juan Tomas Uribarri eta Ander Guaza bilbotarrak; eta eromen horren fruitu da eurek sortutako www.altimetrias.com web gunea.

Bizikletan ibiltzera goazenean, ibilbidea eza-gutzen ez badugu, aurrez errepide mapak kontsultatzea lagungarri izan daiteke, erreferentzia bezala puntu batzuk markatu eta bidea errazago egiteko. Ibilbidea laua bada, osteratxoak lasai antzean egiteko horrekin nahikoa izan daiteke, baina tartean mendaterik badago, datu gehiago izatea komeni da, aldaparen zailtasun maila ezagutu eta indarrak neurtzeko. Frantzia eta Espainiako estatuetako mendateei dagokienez, www.altimetrias.com munduko web gune osatuenetakoa da. Uribarri eta Guazak neurtutako mendate bakoitzaren kilometroz kilometroko altimetria erakusten duen grafikoa du. Pendizaren ehunekoak agertzen dira bertan, baina baita bidean aurkituko ditugun puntu interesgarrienak ere: zubiak, iturriak, tabernak, bidegurutzeak... Halaber, mendatearen kokapena zehazten duen mapa, errepidearen egoe-

Amateurrek profesionalen paperean

CICLISMO EN RUTA aldizkariaren 15. zenbakian zikloturismoaren egoerari buruzko iritzi mamitsuak plazaratu zituzten hainbat adituk. Horietako batzuentzat, froga zikloturistak txirrindulari frustratuentzako ezkutuko lasterketa bihurtu dira. Uribarri eta Guazaren ustez, martxa zikloturistak eta martxa ziklodeportiboak gauza bera ote diren eztabaidatu beharko litzateke lehendabizi: “Gauzarik baliotsuena parte hartzaileek ibilbidea osatzeko behar duten denbora denean, bigarren kontzeptua erabiltzea egokiagoa da”. Martxa horietan, paisaiak gozatzek ez du lehentasuna, ezta gurgila zulatu zaion txirrindulariari laguntzea edo errepidean dabiltzan autoei-eta enbarazue gehiegirik ez egitea ere. Norberak aurreko edizioetan egindako markak hobetzea edo ahalik eta postu onena lortzea da garrantzitsuena. “Lasterketa

baten antzekoak dira, baina protagonistak amateurrek dira. Bakarren batzuk, egun batez bada ere, profesionalen larruan sartzen dira eta ez dagozkien hainbat gauza egiten dituzte: plastiko eta paper zatiak lurrera botatzen dituzte, laguntza mekanikoa matxura izan bezain pronto exijitzen dute, zirkulazio arauak ez dituzte errespetatzen... Aitzitik, martxa zikloturisten baitan bestelako erronkak sartuko lirakeke. Ibilbide bat bete behar da, baina bizikleta gainean emandako denbora ez da aintzat hartzen; ez dago sailkapen-zerrendarik. “Ez du axolarik matxura izan duen lagunari laguntzeko, argazki batzuk ateratzeko edo paisaiak gozatzeko bide bazterrean gertatzeak”. Aurreneko multzoan Quebrantahuesos ezagunaren moduko martxak sartuko lirakeke eta bigarrenean Bilbao-Bilbao eta antzekoak.

Bilbao-Bilbao martxa hilaren 18an egingo da; hura da Euskal Herriko egutegiko lehenengoa. Uribarriren eta Guazaren hitzetan, geroz eta lagun gehiagok hartzen du parte gure inguruan antolatzen diren txirrindulari martxetan, eta horrek trabak sortzen ditu, batez ere segurtasunari dagokionez. Beste arazo bat ere badago: “Hasieran, horrelako martxen antolatzaileentzat, gustura egoteko nahikoa zen ehun txirrindulari batu eta zure klubarekin egindako osteratxoetan ezagututako lekuak bisitatzea. Gaur egun, ordea, diruaren usaina gailendu da. Antolatzaile batzuentzat garrantzitsuena parte-hartze altua izan eta irabazi handiak lortzea da. Horrek zaletu batzuei kalte egiten die. Baita segurtasunari ere, hura bermatzeko geroz eta diru gehiago xahutzen den arren”.

rari buruzko datuak, igoeraren deskribapena eta argazkiak ere aurki daitezke.

Aldapa erasotzeko arma nagusia, pazientzia
Aldapak neurtzera doazenean, Uribarrik kilometro-kontagailua eta burbuilazko klinometroa —nean uneko aldapak neurtzeko— eraman ditu bizikletako eskulekuan; ezkerreko eskumuturrean altimetroa eta atzeko poltsikotan grabagailu txiki bat. Ehun metro egiten dituen bakoitzean, grabagailua atera eta distantzia eta altitudeari buruzko datuak grabatzen ditu. Gainera, mendatea igotzen ari dela gauza interesgarriak ikusten baditu, gauza bera egiten du: “Iturria bidearen ezkerrean, apur

Uribarri eta Guaza Sociedad Ciclista Bilbaína klubeko kideak dira eta *Ciclismo en Ruta* eta *Pedaliar* aldizkari espezializatuetan kolaboratzen dute. Euren web gunean jada 1.000 mendateren datuak bildu dituzte, gehienak Euskal Herrikoak (goiko irudian, Larrañe mendatearen altimetria), baina baita Espainiakoak eta Frantziakoak —Pirinioetakoak bereziki— ere.



Mendate bakoitzaren kilometroz kilometroko altimetria erakusten duen grafikoa, mapa, errepidearen egoera, igoeraren deskribapena eta argazkiak ditu web guneak

bat aurrerago taberna, bihurtune oso itxia, basoan sartzen gara, hemen haizeak gogor jotzen du, errepidean zuloak daude...”. Eta argazkiak ere ateratzen dituzte. Soilik maldek %17-18ko pendiza dutenean uzten dio Uribarrik hitz egiteari, bestela desorekatu egingo litzatekeelako. Halakoetan, zatirik gogorra pasa, behar izanez gero bizikletatik jaitsi eta buruan hartutako datu guztiak arrapaladan botatzen ditu. Etxera itzultzean, Guazak datuak Excel taula batean jaso, mapa topografiko zehatzekin kalibratu eta altimetriak diseinatu ditu (paint programan).

Pendizen ehunekoak kilometroz kilometro jasotzen dituzte grafikoetan eta ondorengo formula erabiltzen dute neurketak egiteko: $Pendiza (\%) = (\text{igotako metroak, altitudea} / \text{ibilutako distantzia}) \times 100$. Mendateek duten zailtasuna erakusten du emaitzak, baina ez da ahaztu behar bestelako faktore batzuk ere aintzat hartu behar direla aldapa batzuei ekin baino lehen: unean uneko sasoi puntua, eguraldia, alboan izango ditugun lagunen exijentzia maila, mendatearen luzera, altitudea, gure bizikletaren plater eta pinoi kopurua... ▢